

Errugbia

ARAUDI EGOKITZAPENAK



XIIIko ERRUGBIA

1. JOKALEKUAREN ETA ATEEN NEURRIAK.

1.1.- Forma eta neurriak.

- a) Jokalekua 90x50 metroko laukizuzen bat da. Zelaiaren albo bakoitzari 5 metro kentzen zaizkio. Zutoinak dauden lekuan uzten dira, eta entseguak gauzatzeko soilik erabiltzen dira. *Oinarrizko seinaleak.*
- Zeharkako marrak:
 - Zelai erdiko marra.- Marra jarraitua, zeharkakoa, zelaia bitan banatzen duena.
 - 10eko marra.- 2 marra eten, erdiko marrari paraleloak, 10 metrora, erdiko marraren alde banatan.
 - 22ko marra.- 2 marra eten, erdiko marrarekiko paraleloak, 22 metrora, erdiko marraren alde banatan.
 - 5eko marra.- 15eko marrak zeharkatzen dituzten lerro txikiak, eta zutoin bakoitzetik 5 metrora ere marrazten direnak.
 - Entsegu marrak.- 2 marra paraleloak, zelai erdiko marrarekiko paraleloak, jokalekua mugatzen dutenak eta gainditu behar direnak.
 - Baloi hileko marrak.- Joko eremuaren amaiera eta markako zonaren muga adierazten dute.
Luzerako marrak:
 - Alboko marrak.- Jokalekua alboetan mugatzen duten marra jarraituak.
 - 15eko marrak.-- Marra etenak, zeharkako marrekin elkartzen diren guneeetan soilik margotzen direnak eta lerrokadura osa daitekeen eremuaren amaiera markatzen dute.

1.2.- Ateen neurriak.

Markako marra bakoitzaren erdian bi zutoin bertikalez osatutako atea kokatzen dira, zutoin horiek kornerreko banderaxoetatik distantzia berera egongo dira elkarren artean 5,6 metroko tarte utziz (barrualdetik neurtuta), eta zutoinen goiko ertzak langa horizontal batez elkartuta egongo dira lurretik 3 metroko altueran. Zutoin bertikalak gorantz luzatzen dira eta ez dago neurri zehatzik.

2. 1.1.-TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA.

2.1.-Taldeen osaera.

- a) Jokalariak aktan.- Gehienez 20 jokalaria sar daitezke aktan.
b) Jokalekuko jokalariak.- Joko eremuan, eta aldi berean, talde bakoitzeko gehienez ere 13 jokalaria egongo dira.

2.2.- Jokalariak txandatzea eta aldatzea.

. Nahi beste aldaketa egin daitezke. Jokoa etenda dagoenean edo jokalariren batek min hartzen duenean egingo dira.
Denak

3. PARTIDEN IRAUPENA.

Partidak 25 minutuko 2 denbora ditu eta denboren artean 10 minutuko atsedenaldia egiten da

I Infantiles

M Masculino

F Femenino

Errugbia

ARAUDI EGOKITZAPENAK



4. MATERIALA.

4.1. - Baloia.

4-5 zk.-ko baloia

4.2. - Babesgarriak

Jokatzeko, nahitaezkoa izango da aho babesgarri bat eta bota takoanitzak erabiltzea.

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. - Jokatzeko modua.

a) *Partida baten hasiera.- XVeko Errugbiaren araudia.*

Entregu baten ondoren, entsegua jaso duen jarriko du baloia jokoan, erdiko sake bat eginda.

5.2. Tanteoa.

a) *Entsegua.-* Jokalari batek aurkariaren markako zonan lurra baloiarekin ukitzen duenean: 5 puntu.

b) *Entsegua gauzatzeko saiakera.* - Entsegua lortu duen taldeak jaurtiketa bat egingo du, baloia lurrean jarrita, eta zutoinen artean sartu beharko da. Jokalariak jaurtiketa txandaka egin beharko dute. Gauzatuz gero, 2 puntu lortuko dira. Denbora gelditu egiten da.

c) *Baliogabetua.*

Jokalari batek bere markako zonan baloiarekin lurra ukitzen duenean gertatzen da.

Baliogabetze baten ondoren, 22ko sake batekin edo mele batekin jarraitzen da.

d) *Dropa.* Ez da legezkoa.

5.3. - Plakaketa

Plakaketa nahitaez bi besoekin egin behar da eta **betiere gerri parean**. **Gerritik gorako plakaketa guztiak zigortu egingo dira.** Debehatuta dago eskuz zangotrabatzea.

5.4. - Melea

a) Agindutakoa.

Agindutako mele bat, zelaian bakarrik gerta daitekeena, bi ekipoetako jokalariek taldekatuz eratzen da, baloia beraien artean lurrera jaurtitzea ahalbidetuz. Alboko marratik eta markako marratik gutxienez 5 metrora egin beharko da.

Melearen ezaugarriak:

Mele hezigarria, 3+2+1 eran osatua, bultzik egin gabe eta lehiatu gabe.

Jokoz kanpoko marrak 5 metrora. Formazioa 3 urratsetan:

1. Makurtu
2. Ukitu
3. Sartu

Meleko erdilariak atzerapenik gabe sartuko du baloia. Aurkaria alboan jarriko zaio, ez dio baloiari jarraituko, melearen atzealdean jar daiteke, ardatzean.

5.5. Maul.

Teknika indibiduala da, blokeatuta dagoen jokalari baten eskuetan dagoen baloia askatzeko edo berreskuratzeko. Jokalekuan gertatzen da eta talde bakoitzeko jokalari batek edo gehiagok osatzen dute, zutik eta elkar ukitez, baloia duen jokalaria inguratzen dutela.

5.6. - Ruck

Gutxienez talde bakoitzeko jokalari bat, zutik, elkar ukitez, baloia lurrean, euren azpian dutela.

5.7. Albokoa edo touche-a.

. Zuzeneko edo zeharkako ostiko baten ondorioz, baloia alboko marratik irteten bada, XVeko errugbiaren araudia erabiliko da.

b) Formazioa lerrokaduan

I Infantiles

M Masculino

F Femenino

Errugbia

ARAUDI EGOKITZAPENAK



- XVeko errugbi araudiak ezartzen duen bezala, jauzi egiten duenari lagundu gabe.

5.8. - Faltak.

Joko desleiala: 5 minuturako edo partida osorako egotzi, faltaren larritasunaren arabera. Falta oso larria izanez gero, jokalaria kanporatuta geratuko da torneo guztirako.

Falta jaurtiketa: XVeko errugbiaren araudia, atera jaurtitzea izan ezik, ez baitago baimenduta.

Jaurtiketa librea XVeko errugbiaren araudia.

5.9. - 22ko sakea.

XVeko errugbiaren araudia.

5.10. - Airean hartzea edo mark.

Jokalari batek airean hartzen du baloia bere marka zonan edo bere 22ko zonan egonik, zuzenean aurkako baten ostiko edo aurrerako pase batetik datorren baloia argi eta garbi harrapatu eta aldi berean "mark" oihukatzen duenean.

Baloia erdiko sake batetik baldin badator, ez du baloi.

5.11. - Epailak txistua jotzen duenean: Baloiaren jokalariak berehala utziko du falta izan den gunean; bestela, jaurtiketa batekin zigortua edo aldatua izango da.

5.12. 5 entseguren aldea: 5 entseguren aldea dagoenean, berdina da zein unetan den, emaitza behin betikoa izango da, eta taldeak orekatu egingo dira harik eta partida amaitu arte.

ARAUDI HONETAN JASO GABEKO KASUETAN XVeko ERRUGBI ARAUDIA ERABILIKO DA.